

## DENOK NARKOTRAFIKOAREN AURKA

Filipinetako gobernuak narkotrafikoaren aurka bultzatutako gehiegizko indarkeria gaitzetsi egin dute hainbat gobernu eta giza eskubideen aldeko hainbat erakundek. Drogatu ahal izateko drogekin trafikatzan duten kontsumitzaile txiki eta kaltegabeen buruz ari bagara, salaketarekin bat dator. Baina, narkotrafikatzaile handiei edota ertainei buruz ari bagara, kasu horretan ez, ez dator bat.

Esan nahi dudana zera da, zenbateko “gizatasuna” erakutsi behar dugu El Chapo-arekin, Zeta taldeko kideekin eta halako jendaila osatzen duten narkotrafikatzaileekin? Narkotrafikatzaile handi eta ertainek ez al dituzte milaka familia (milioika, planeta osoan) suntsitu, narko horietako batzuk euren produktu pozoitsuen kontsumitzaile izatera ere iristen ez direlarik? Zergatik eduki behar da horrenbesteko kontsiderazioa beraiekin eta euren familiekin, noiz eta haiek erreparorik txikiena ere ez baitute familia osoak sarraskitzeko, narkotrafikoarekin eta mota guztietako negozio zikin eta kriminalekin lotutako euren arrazoi gorrotagarriengatik beti?

Gerra zikina balekoa baldin bada, esaterako, terrorismo yihadistaren aurka borrokatzeko, zergatik ez luke balekoa ere izan beharko gure gazteria suntsitu eta gure gizartearen amildegiaren ertzera eramaten duten zerri terrorista horien aurka eta euren negozio higuigarrien aurka borrokatzeko, hau da, narkotrafikoaren, proxenetismoaren, sikarioen, mafien eta abarren aurka borrokatzeko?

Heroina berriro ere indartsu dabil azken aldian Estatu Batuetan. Hegoamerikan, koka-eta, zer esanik ez. Eta ez dira droga gogor bakarrak. Zenbat pertsona, zenbat familia erail dituzte putaseme horiek euren narkotrafiko kakatsuarekin? Eta zenbat hildako utzi ditu Europar edo Estatu Batuetan, esaterako, yihadisten terrorismoak? Askoz gutxiago, noski, askoz gutxiago. Alderatzetik ere ez dago. Zer dela-eta halako “zalantza”, halako “erreparo”, maila handiko narkotrafikoaren aurka borrokatzeko? Zer ba, herrialdeko BPGaren portzentaje esanguratsu bat al da ala? Noraino infiltratu dira narkotrafikatzaile, mafia handiak? Noraino sartu dira euren diruzuriketekin? Banketxeak sortu al dituzte?, politikaren goi-esferetan

sartu al dira?, GK Eren bati diruz laguntzen al diote euren aurpegi beltz-beltzak ere zuritu nahian...?

Ez dakit Donostian erraustegia azkenean martxan jarriko duten ala ez. Eta jartzekotan, ez dakit zenbat lagun eramango dituen aurretik, pozoiturik. Baina Donostian bakarrik, drogek bizitza izorratutakoak baino askoz gutxiago izango dira, ziur; bai, "San Sebastián" hiriaz ari naiz, Kantauriko "perlaz", non drogadizio-mailak ikaragarriak izan baitira (hau ere sar dezatela Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programaren barruan).

Berariaz, ea altzairuzko sare batzuk oparitzen dizkieten Guadarrama ibaian narkotrafikoaz arduratzen direnei, narkotrafikatzaileen txalupak ibaian gora eta behera lasai-lasai ibil ez daitezten. Batzuetan batek ez daki zer pentsatu: aginpiderik eza, ez ikusiarena...

Eta azken gogoeta bat demokraziaren mugei buruz. Adibide gogor bat: Mexikon sarraskitutako ikasle gazteak. Zer dugu, ba, "legea eskuan" egin behar da borroka basakeria horiek egiten dituztenen aurka? Agian, Bigarren Mundu gerran, aliatuek ere eztabaida moral eta etiko larri eta sakonetan murgildu beharko zuketean, Alemaniako hiriak bonbardatu baino lehen, alemanek haienak bonbardatzen zituzten bitartean eta jendea akabatzeko esparruetako tximiniei kea etengabe zerien bitartean.